

# EUSKADIKO ORKESTRA

## 22—23

# Tragedia

→ Shostakovich · Falla

IRAILA 28 SEPTIEMBRE  
19:30

PAMPLONA / IRUÑA  
Baluarte

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular  
**ROBERT TREVIÑO**

Musikariak / Las/os músicas/os

## KONTZERTINOA CONCERTINO

Kamran Omarli

## I BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)

Xabier de Felipe (3)

José Ignacio Aizpiri

Inmaculada Aramburo

Laura Balboa

Irene Echeveste

Marie Gaillard

Alexandre Kozouline

Oscar López

Maite Menéndez

Larraitz Oiartzabal

Ortzi Oihartzabal

Itziar Prieto

Maialen Rezabal

Cristina Vértiz

## II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)

Xabier Gil (2)

Mikel Ibañez (3)

Amaia Asurmendi

Nathalie Dabadie

Virgile Demillac

Ludwik Hamela

Anne-Marie Harmat

Antoni Kosc

Luxi Lavielle (4)

Ricardo Ruiz

Igor Torre

## BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)

Pawel Krymer (2)

Monika Mazur (3)

Maite Abasolo

Esther Alba

Pascal Arnaud

Natacha Dupuy-Scordamaglia

Justyna Janiak-Krymer

Arkaitz Martínez

Sergio Montero

Yann Seyrac

## BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)

Gabriel Mesado (2)

Flore Lefevre (3)

Natalia Díaz

Jacek Grabe-Zaremba

Jon Larraz

Beatriz Linares

Tetiana Mertelova (4)

Pascale Michaud

Ian Swedlund

## KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)

Paloma Torrado (2)

Guangyao Zhao (3)

Victor Bogdanov

Marc Sirera

Mehmet Sönmez

Pierre Torrent

## FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)

Bruno Claverie (2)

Ander Erburu

Oihana Kontxeso

## OBOEAK / OBOES

Silvia Esain (2) (4)

Hervé Michaud (2)

Rafael Alonso

Pascal Laffont

## KLARINETEAK

### CLARINETES

Luis Cámara (2)

Juan Navarro (2)

Stéphane Langlois

Sara Zufiaurre

## FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)

François Proud (2)

Yuan Dai

Anne Charlotte Lacroix

## TRONPAK / TROMPAS

Jean-Luc Casteret (2)

Cristian Palau (2)

Adrián García Carballo

Xabier Sarasa

Salvador Tudela

## TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)

Bernabé García (2)

Jesús Castillo

Miguel Echepare

## TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)

Christophe Sánchez (2)

Daniel Ruibal

## TUBA

Oscar Abella (2)

## TINBALAK ETA PERKUSIOA

### TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)

Héctor Marqués (2)

Igor Arostegi

Xabier Peña

## HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal



**ROBERT TREVIÑO**  
Zuzendaria ° Director



**ALEXEI VOLODIN**  
Pianoa ° Piano

## Egitaraua ^ Programa

---

### I

#### **MANUEL DE FALLA** (1876-1946)

##### **Noche en los jardines de España** [23']

Argitaletxea / Edita: Manuel de Falla Ediciones

- I. En el Generalife
- II. Danza lejana
- III. En los jardines de la Sierra de Córdoba

### II

#### **DMITRI SHOSTAKOVICH** (1906-1975)

##### **Sinfonía N°8 en do menor, Op.65** [61']

Argitaletxea / Edita: Internationale Musikverlage Hans Sikorski

- I. Adagio - Allegro non troppo
- II. Allegretto
- III. Allegro non troppo
- IV. Largo
- V. Allegretto

«**T**ragedia gainditzea» da Denboraldi honen goiburua; Denboraldi berrian, **Robert Treviño**k garrantzi handia ematen dio musika erusiarrari. Dmitri Xostakovitxen *8. Sinfonia*arekin hasiko du bere ibilbidea, goiburu horren adierazle kanoniko baita. Gerraren aurkako une horren intentsitate tragikoaren kontrapuntu atsegina Manuel de Fallaren *Espainiako lorategietako gauak* izango da, hiru orrialde non cadiztarrek Andaluziako beste hainbeste paisaia irudikatu baitzituen. **Alexei Volodin** musikariak –2003an Zuricheko Geza Anda lehiaketa irabazi zuenak– joko ditu. Volodin 2019an aurkeztu zen Euskadiko Orkestraren ikus-entzuleen aurrean Rakhmaninoven *3. kontzertu* birtuoso eta indartsuarekin, eta bisita berri honetan musikariak bere moldakortasuna erakutsiko digu, Manuel de Fallaren gaueko irudi horien inpresionismo finari heltzean.

**Espainiako lorategietako gauak** espainiarra izanik Parisen bizi zen eta Espainiari buruz lengoai musikal frantses-frantsesez idatzi zuen konpositore baten lana da. Zalantzarik gabe, **Manuel de Falla**ren sorkuntzarik «inpresionistena» da, eta Vladimir Jankelevitchek uste duen bezala, bere hiru mugimenduek «ez lukete horrenbestearinoko distirarik, halako edertasun berdingaberik, horrelako ikusmen, soinu eta perfumezko freskotasan inpresionistarik izango, Ravelen *Rapsodie Espagnole* eta Debussyren *Iberia* existitu izan ez balira». 1909an hasi eta 1915ean amaitu zituen, Falla jada Espainiara itzuli zenean. Partitura 1916ko apirilean estreinatu zuten José Cubilesek eta Enrique Fernández Arbósek, Madrilgo Orkestra Sinfonikoaren buru izanik. Santiago Rusiñol lorategien margolari ospetsuaren koadroetan inspiratuta, Fallak honako lorategi hauek ekartzen ditu gogora lan horretan: Generalifekoa, Granadako Alhambra; Kordobako mendilerrokoak, hirugarren mugimenduan; eta, tarteko mugimenduan (*Danza lejana*, ijitoen *zambra* orgiastiko bat) lorategi ezezagun bat irudikatzen du.

Oroitzapenen asmo zehatzari buruz, hauxe idatzi zuen konpositore cadiztarrek: «'Inpresio sinfoniko' horiek euren helburua lortu badute, dagozkien izenburuak zerrendatze hutsak nahikoa izan beharko luke entzulea gidatzeko. [...] Xede bakar batekin idatzi zen: leku, sentsazio eta sentimenduak oroimenera ekartzea, besterik ez da. Erabilitako motiboak [...] Andaluziako herri-musika bereizten duten erritmo, modu, kadentzia eta irudi apaingarrietan oinarritzen dira, nahiz eta oso gutxitan erabiltzen diren jatorrizko formetan. Orkestrazioak maiz erabiltzen ditu, modu konbentzionalean, Espainiako eskualde horretan erabiltzen diren herri-instrumentuen zenbait efektu berezi. Musikaren jomuga ez da inolaz ere deskriptiboa izatea; adierazkorra baino ez da. Baina jaialdietako eta dantzetako soinuez gain, beste zerbaitek ere inspiratu ditu 'soinuzko oroipen hauek', malenkonia eta misterioa ere piezaren parte baitira».

Sobietar Batasunari garesti atera zitzaion Bigarren Mundu Gerran parte hartzea, pertsona ugari hil baitziren eta suntsipena izugarria izan baitzen. Aliatuen 1945eko garaipenaren aurreko urteak oso gogorrak izan ziren sobietarrentzat, eta hori artista ugariaren obran islatu zen, hala nola **Dmitri Xostakovitx**enean, zeinak bi gerra-sinfonia konposatu baitzituen herri erusiarraren sakrifizioa, heroismoa eta sufrimendu sakona kontatuz. Gerra-sinfonia horiek, alabaina, oso patu ezberdina izan zuten: *7. Sinfonia*, 1942an estreinatu zen, lehenik Kuibyxeven (SESBeko behin-behineko hiriburua Moskuko gudu) eta gero Leningraden, indar alemaniarrek hiria setiatzen ari zirela; horregatik, erresistentziaren sinbolo bihurtu eta berehala hasi ziren mundu osoan jotzen. Gaur egun ere, Xostakovitxen sinfoniarik ezagunena da *Bosgarren*arekin batera. **8. Sinfonia**k, aldiz, ez zuen lortu aurrekoaren arakasta berdintzea, antzeko ereduari jarraitu bazion ere, eta gaur egun gutxien programatu ohi denetako bat da Xostakovitxen sinfonien artean.

Konpositorea 1943an hasi zen sinfonia hori lantzen, Ivanovo aintziran egin ohi zuen udako erretiroan, eta Evgeni Mravinskik berehala estreinatu zuen urte bereko azaroan. Handik gutxira Erresuma Batua eta Estatu Batuetara iritsi zen Kusevitski edo Rodzinski bezalako zuzendarien eskutik, baina ikus-entzuleen eta kritikaren harrera ez zen *Zortzigarrenaren* kasuan bezain suttsua izan, begirune hutsezkoa baizik, eta partitura laster galdu zen nazioarteko zirkuituan.

Sobietar Batasunean, gainera, ospea galarazteko kanpaina baten biktima izan zen *8. Sinfonia*. 1948an, Andrei Zhdanov musikarien jokabideari buruzko ebazpenak aldarrikatzen ari zenean, lana bortizki eraso zuen Vladimir Zakharovek. Musika arinaren egile horrek salatu zuenez, «gure sinfonia-egileek altzairuzko oihal bat altxatu dute Herriaren eta euren artean. Konpositore horiek zeharo arrotzak eta ulergaitzak dira gure Sobietar Herriarentzat [...] Oraindik ere eztabaidatzen jarraitzen da *Zortzigarrena* ona ala txarra ote den. Eztabaida hori txorakeria hutsa da. Herriaren ikuspuntutik, *Zortzigarrena* ez da inolaz ere musika-obra bat, artearekin zerikusirik ez duen 'konposizio' bat baizik».

Eraso horrek eta antzeko beste batzuek sinfonia isiltasunera kondenatu zuten azkenean, eta 1956an Xostakovitx saminez kexatu zen «*Zortzigarren Sinfonia* urte askoan ez delako interpretatu. Obra honetan Herriaren bizipen emozionalak adierazteko saiakera bat egon zen, gerraren tragedia izugarria islatzeko saiakera bat, hain justu, [...] garai gogor horren oihartzuna da». Azkenik, sinfonia bi urte gerago itzuliko zen errepertorioa, Alderdi Komunistaren Batzorde Zentralaren ebazpen baten ondoren. Ebazpen horren arabera, «Xostakovitx, Prokofiev, Khatxaturian, Xebalin, Popov, Miaskovski eta beste zenbait kamarada bereizi gabe salatu ziren, korronte antiherriko formalista baten ordezkariatza jo baitziren».

Hurrengo hamarkadetan *8. Sinfoniaren* balioa handitu egin da. Lehen mugimendua, sinfoniaren ia erdia hartzen duen adagio zabal bat, Kusevitskik bere garaian jada goretsi zuen, «giza emozioen ahalmenagatik, gure garaian sortutako guztia gainditzen duen» mugimendu gisa. Daniel Zhitomirski kritikariak «hiru martxak» izena jarri zien tarteko hiru mugimendu nagusiei: martxa heroikoa, *scherzo* bat eta hileta-martxa bat. Baina *finale* labur eta zehatzak, do maiorreko tonaliterara egiten duen ustekabeko modulazioarekin, da sinfonia hau tragediatik garaipenerako bilakaera duten obren tradizioan kokatzen duen mugimendua. Baina Xostakovitxek bere moduan egiten du hori. Mark Wigglesworth orkestra-zuzendariak adierazten duen bezala: «Luzaroan do minorreko sinfoniak egiteko tradizioa egon da, *finale* baikorretarako la maiorrean azaleratzen direnak. Beethovenen *Bosgarrena*, Brucknerren *Zortzigarrena* eta Mahlerren *Bigarrena* tragediaren garaipenaren bilbearen oinarritzko arketipoari jarraitzen diote. Baina antzeko tonua izan arren, zalantzazkoa da Xostakovitxen *Zortzigarrena* horrelakotzat jotzekoa ote den. Egia esan, iluntasunetik argira bidaiatzen du, baina bakea garaipena baino gehiago irrikatzen duen bidaian bat da eta, horrenbestez, bere azken konpasak askoz ere antzekotasun handiagoa dute Mahlerren *Lurraren Kantarekin*.

Ez dago modurik jakiteko Xostakovitxek zer asmo zehatzez konposatu zuen amaiera hori, baina, zalantzarik gabe, beretzat oso garrantzitsua zen. Elizabeth Wilsonen konpositorearen biografian jasotzen duenez, Yakov Milkis, 1957tik 1974ra Leningradeko Filarmonikako biolinjolea izan zena, Xostakovitx topatu zuen Ingalaterratik Frantziara ferryz egindako bidaiaren batean. Itsasontziko barandaren ondoan hizketan ari zirela, Milkisek hau esan zion: «obrako gauzarik aipagarrienetako bat *finalerako* trantsizioa da... musika do maiorrean eguzki-izpi baten modura burutzen da». Biolinjolearen arabera, «Dmitri Dmitriyevitxek begiratu egin zidan, eta ez du sekula ahaztuko haren begiak zein adierazkorak ziren. 'Nire lagun maitea, jakingo bazenu zenbat odol kostatu zitzaidan do maior hori!'».

«**D**e la tragedia a la superación” es el lema de esta Temporada en la que **Robert Treviño** ha otorgado gran relevancia a la música rusa. Su recorrido se inicia con la *Sinfonía nº8* de Dmitri Shostakovich, que ejemplifica este lema de manera canónica. La intensidad trágica de este monumento antibélico tendrá su contrapunto amable en las *Noches en los jardines de España* de Manuel de Falla, tres páginas en las que el compositor gaditano plasmó otros tantos paisajes de Andalucía. Estarán interpretadas por **Alexei Volodin**, ganador en 2003 del Concurso Geza Anda de Zúrich. Aunque su presentación ante el público de la Euskadiko Orkestra en 2019 fue con el virtuoso y muscular *Concierto nº3* de Rachmaninoff, en esta nueva visita Volodin dará muestra de su versatilidad al abordar el refinado impresionismo de estas estampas nocturnas de Falla.

*Noches en los jardines de España* es la obra de un compositor español que vivía en París, escribiendo sobre España con un lenguaje musical puramente francés. Es, sin duda, la creación más “impresionista” de **Manuel de Falla** y, tal y como opina Vladimir Jankelevitch, sus tres movimientos “no tendrían semejante brillo, semejante belleza inigualada, semejante fresca impresionista de vista, sonido y perfume, si no hubieran existido ya la *Rapsodia española* de Ravel y la *Iberia* de Debussy”. Iniciada en 1909 y finalizada en 1915, con Falla ya de vuelta en España, la partitura fue estrenada en abril de 1916 por José Cubiles y Enrique Fernández Arbós al frente de la Orquesta Sinfónica de Madrid. Inspirado por los cuadros del célebre pintor de jardines Santiago Rusiñol, los tres que evoca Falla son el del Generalife, en la Alhambra de Granada; los jardines de la Sierra de Córdoba, en el tercer movimiento; y un desconocido jardín en el movimiento intermedio, *Danza lejana*, una orgiástica zambra gitana.

Sobre la intención exacta de las evocaciones, el compositor gaditano escribió: “Si estas ‘impresiones sinfónicas’ han logrado su objeto, la mera enumeración de sus títulos debe constituir una guía suficiente para el oyente. [...] el fin para el cual fue escrito no es otro que evocar [el recuerdo de] lugares, sensaciones y sentimientos. Los temas empleados se basan [...] en los ritmos, modos, cadencias y figuras ornamentales que distinguen la música popular de Andalucía, aunque ellos rara vez estén usados en sus formas originales. La orquestación emplea frecuentemente, y de una manera convencional, ciertos efectos peculiares de los instrumentos populares que se utilizan en esa región de España. La música no tiene ninguna pretensión de ser descriptiva; es meramente expresiva. Pero algo más que los sonidos de los festivales y las danzas ha inspirado estas ‘evocaciones en sonido’, pues la melancolía y el misterio también tienen su parte”.

La Unión Soviética pagó un alto precio en vidas humanas y destrucción por su participación en la Segunda Guerra Mundial. Los años previos a la victoria aliada de 1945 fueron extremadamente duros y esto tuvo su reflejo en la obra de los artistas, como **Dmitri Shostakovich**, quien compuso dos “sinfonías de guerra” relatando el sacrificio, heroísmo y profundo sufrimiento del pueblo ruso. Cada una de estas sinfonías de guerra corrió, sin embargo, una suerte muy diferente: la *Sinfonía nº7*, estrenada en 1942, primero en Kuibyshev (capital provisional de la URSS durante la batalla de Moscú) y más tarde en Leningrado, con las fuerzas alemanas sitiando la ciudad, se convirtió en un símbolo de la resistencia e inmediatamente se interpretó por todo el mundo. Sigue siendo, aún hoy, la sinfonía más popular de Shostakovich junto a la *Quinta*. La *Sinfonía nº8*, por el contrario, no logró igualar su éxito de la anterior a pesar de seguir un modelo similar, y es actualmente una de las sinfonías menos programadas de Shostakovich.

El compositor comenzó a trabajar en ella en 1943, durante su habitual retiro veraniego en el lago Ivanovo, y fue estrenada rápidamente por Yevgeny Mravinsky en noviembre de ese mismo año. Poco después llegó a Reino Unido y Estados Unidos de la mano de directores como Koussevitzky o Rodzinski, pero la recepción del público y de

la crítica no fue entusiasta como en el caso de la *Séptima*, sino tan solo respetuosa, y la partitura pronto se perdió de vista en el circuito internacional.

En la Unión Soviética la *Sinfonía nº8* fue, además, objeto de una campaña de desprestigio. En 1948, cuando Andrei Zhdanov estaba promulgando resoluciones sobre la conducta de los músicos, la obra recibió un ataque brutal por parte de Vladimir Zakharov, un autor de música ligera que denunció que "nuestros sinfonistas han levantado un telón de acero entre el Pueblo y ellos mismos. Estos compositores son ajenos y completamente incomprensibles para nuestro Pueblo Soviético [...] Todavía hay discusiones sobre si la *Octava* es buena o mala. Tal discusión es una tontería. Desde el punto de vista del Pueblo, la *Octava* no es en absoluto una obra musical; es una 'composición' que no tiene nada que ver con el arte".

Este y otros ataques similares terminaron por condenar la sinfonía al silencio, hasta que en 1956 Shostakovich se quejó amargamente de que "la *Octava sinfonía* no haya sido interpretada durante muchos años. En esta obra hubo un intento de expresar las vivencias emocionales del Pueblo, de reflejar la terrible tragedia de la guerra [...] es un eco de esa época difícil". Finalmente, la sinfonía volvería al repertorio dos años después, tras una resolución del Comité Central del Partido Comunista según el cual "los camaradas Shostakovich, Prokofiev, Khachaturian, Shebalin, Popov, Miaskovsky y otros, cuyas obras a veces revelaron tendencias equivocadas, [habían sido] denunciados indiscriminadamente como representantes de una corriente antipopular formalista".

Las décadas posteriores han visto la revalorización de la *Sinfonía nº8*. El primer movimiento, un extenso adagio que ocupa casi la mitad de la sinfonía, fue ya alabado por Koussevitzky como un movimiento "que, por el poder de sus emociones humanas, sobrepasa todo lo creado en nuestro tiempo". Los tres movimientos centrales fueron bautizados por el crítico Daniel Zhitomirsky como "las tres marchas": una marcha heroica, un scherzo y una marcha fúnebre. Pero es el breve y conciso *finale*, con su inesperada modulación a la tonalidad de do mayor, el que ubica la sinfonía en la tradición de obras que evolucionan de la tragedia al triunfo. Aunque Shostakovich lo haga en sus propios términos. Como señala el director de orquesta Mark Wigglesworth: "Durante mucho tiempo ha habido una tradición de sinfonías en do menor que emergen en la mayor para sus finales optimistas. La *Quinta* de Beethoven, la *Octava* de Bruckner y la *Segunda* de Mahler siguen el arquetipo básico de la trama de la tragedia hacia el triunfo. Pero a pesar de la tonalidad similar, es dudoso que la *Octava* de Shostakovich se pueda colocar entre ellas. Ciertamente, viaja de la oscuridad a la luz, pero es un viaje que anhela más la paz que la victoria y, como tal, sus últimos compases son mucho más parecidos a los de *La Canción de la Tierra* de Mahler.

No hay forma de conocer las intenciones exactas de Shostakovich con este final, pero es seguro que para él era muy relevante. Tal y como recoge Elizabeth Wilson en su biografía del compositor, Yakov Milkis, violinista de la Filarmónica de Leningrado entre 1957 y 1974, coincidió con Shostakovich en un viaje en ferry desde Inglaterra a Francia. Mientras charlaban junto a la barandilla del barco, Milkis le comentó que "una de las cosas más destacables de la obra es la transición al *finale*... la música se resuelve en do mayor como un rayo de sol". Según el violinista, "Dmitri Dmitriyevich me miró y nunca olvidaré la expresión de sus ojos. 'Mi querido amigo, si supieras cuánta sangre me costó ese do mayor'".

Mikel Chamizo

Hurrengo Abonu kontzertua · Próximo concierto de Abono

# Mamuak

## Fantasmas

→ Tchaikovsky · Carpenter

URRIA  
31  
OCTUBRE  
19:30

SARRERAK / ENTRADAS

10€ < 38€

- euskadikoorkestra.eus  
- baluarte.com  
- Leihatila / Taquilla

AZKEN  
ORDU  
GAZTEA!  
10€



## GURE JENDEA, GURE KULTURA

Bihotza gure lurrean eta arima munduari zabalik. Horrelaxe babesten dugu geurea. Izan ere, norik bere burua ezagutuz eta estimatuz soilik ezagutu eta estima ditzake besteak.

Horregatik, zuri esker, atek zabaltzen ditugu egunero, gure lanaren bidez kulturari eta garen bezalakoak izanarazten gaituen jendeari laguntzeko, eta, pausoz pauso, banku kooperatiboa garen aldetik, gure helburua betetzeko: gizarte bidezkoagoa, irekiagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzea, tokikoa eta unibertuala eskutik doazen mundu batean.

**Bada beste modu bat.**

## NUESTRA GENTE, NUESTRA CULTURA

Con el corazón en nuestra tierra y el alma abierta al mundo, así defendemos lo nuestro, y es que solo sabiendo lo que eres es posible conocer y apreciar lo que son los demás.

Por eso cada día, gracias a ti, levantamos el telón para apoyar con nuestro trabajo a la cultura y a la gente que nos hace ser como somos, paso a paso hacia nuestro objetivo como banca cooperativa, un mundo donde lo local y lo universal se dan la mano para formar una sociedad más justa, abierta y solidaria.

**Hay otra forma.**



**LABORAL**  
kutxa